

BUSTURIALDEA ESKUALDEKO PARTAIDETZA FOROA

Abenduaren 11n eta 12an egin dira Busturialdea-Urdaibai Eskualdeko Plan Estrategikoaren barruan kokatutako Eskualdeko Partaidetza Foroari dagozkion lehen jardunaldiak. Guggenheim Urdaibai STOP plataformatik honako hau adierazi nahi dugu:

- Plataformak bilera horretan parte hartu du Busturialdeko udal batek berariaz egindako eskaerari esker, eta ez Foro hau sustatu duten erakundeek, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak egindako eskaerari esker. Orain arte ere, geuk eskatuta egin ditugu bilerak erakunde horiekin.

- Foro horretako gure parte-hartzeak helburu bakarra izan du une oro: beste behin ere argi uztea zer jarrera dugun gure ustez muina den Guggenheim Urdaibai proiektuari buruz; izan ere, era batera edo bestera, nahi eta nahi ez, zuzenean lotuta dago bai eskualde honen etorkizunarekin, bai egin nahi den Plan Estrategikoarekin berarekin ere.

-Baina guztiz harrigarria da museo-proiektu horren aipamenik ez egitea Foroa gauzatzeaz arduratu den BMasi aholkularitzak aurkeztu duen "Busturialdea-Urdaibai eskualdearen diagnostikoa" izeneko dokumentuan. Ulertezina egiten zaigu Foro hori bultzatu duten erakundeek proiektua "estrategikotzat" jo izana, ez bakarrik eskualdearentzat, baizik eta herrialdearentzat ere, eta ondoren, aipamenik ere ez egitea abiapuntua den dokumentu honetan.

- Gabezia hori ikusita, gure ustez, Plan Estrategikoaren beraren esparruan Plan horren zati bati buruz hitz egiteko aukera baztertzeko da (Guggenheim Museoari buruz), eta hori kontraesana da; hau da, "proiektu estrategikoa" den hori ez da eztabaidagai "Plan Estrategiko" baten esparruan.

- Gure ustez, proiektu horren aurkako herritarren aldarriak eta administrazioek berori inposatzeko erabili duten forma ez oso demokratikoak ekarri du plan sozioekonomiko instituzional hori abiatu beharra, bai eta Eskualdeko Partaidetza Foroa ere. Agintari politiko askok iragarri dute laster sortuko direla herritarren parte-hartzeko eta entzute aktiborako foroak, Guggenheim Urdaibairi dagokionez. Beraz, galdera bat daukagu: Zergatik ez du hartzen eskualdeko partaidetzarako Plan Estrategiko honek Guggenheim Urdaibairi buruzko beharrezko eztabaida?

Gure plataformak beti adierazi du argi eta garbi proiektu horren aurka dagoela eta behin betiko geldiarazi behar dela, harik eta galdera erraz baina argigarri batzuk erantzun arte:

- Beharrezkoa da Urdaibaiko Guggenheim Museoa?
- Zertarako eta zein dira argudioak? (Argudio horiek inoiz baino beharrezkoagoak lirateke, aurkeztutako diagnostikoan aipatzen ez dela kontuan hartuta)
- Zergatik inbertitu behar dugu herritar guztion poltsikotik gutxienez 140 milioi euro atzerriko frankizia baten alde? (Pradales lehendakariak argi esan du azken adierazpenetan baliabide publikoak mugatuak direla)
- Ebaluatu dira ingurumenean, ekonomian, gizartean, identitatean eta kulturean izango dituen ondorioak? Non daude txosten horiek?
- Zergatik erabiltzen ari dira dirutza publiko izugarria "sastrakak garbitzeko" eta herritarren zati handi batek argi eta garbi gaitzesten duen proiektu bat ahalbidetzeko?

- Foro hau, antolatuta dagoen moduan, inposizioz burutu nahi den zerbaiten apaingarri justifikatzailea da, eta elite politiko baten erabaki-eremuan kokatzen da; ez du zerikusirik benetako gobernantza parte-hartzailearekin, demokratikoarekin eta herritarrei irekita dagoenarekin. Parte-hartze Foro honek, benetan hala izan nahi badu, Guggenheim Museoaren proiektu hori gauzatzera bideratutako "sastrakak kentzeko" ekimen ugari eta esanguratsu horiek guztiak leheneratu, bertan behera utzi eta/edo deuseztatzeko agindua eman beharko luke. Era berean, alde batera utzi beharko litzuke gauzatuta eta atzera buelta barik dauden gertakariak, berdintasunez eztabaidatzea eragozten dutenak.

- Arestian adierazi dugun defizit demokratiko sakonaz gain, uste dugu Foro honek ez dituela betetzen Espainiako Estatuak sinatutako Aarhuseko Hitzarmenean herritarren parte-hartzeari buruz onartutako gutxieneko estandarrak, nahitaez bete beharrekoak direnak. Era berean da betebeharrekoa Eusko Legebiltzarraren 2017ko ekainaren 20ko Legea ere, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren berrikuspen berria eskatzen zuena.

- Azpimarratu nahi dugu gure Plataforma beti agertu dela eskualderako Ekonomia, Gizarte eta Kultura Suspertzeko benetako Plan baten alde, eta ez Busturialde osoaren benetako beharrianekin deskonektatuta dauden agintarien kapritxoaren mende dagoenaren alde. Plan horrek Biosfera Erreserbaren ingurumen-balioak benetan eta eraginkortasunez babestu behar ditu, azken hamarkadetan aipatutako erakundeek babesik gabe utzi baitute.

- Azkenik, uste dugu Guggenheim Museoaren proiektuak (Foroan trakzio-proiektu gisa aurkeztuz gero) izango lukeen adostasunik eza dela benetan erakundeek azken maniobra horren atzean ezkutatzen dena, GU proiektua Forotik kanpo uztea. Izan ere, aipatutako museo-proiektuarekin hasteko iragarrita dagoen gastu minimoa 140 milioi eurokoa izanda, ez litzateke inola ere nahikoa izango etorkizuneko proiektu traktoreetan inbertitzea proposatzen dena (100 milioi euro inguru). Inbertsio guztia jango luke museoak. Eta bestalde, kopuru hori, zalantza barik, ez da nahikoa Busturialdeak urteetan gauzatu barik dituen premiei erantzuteko.